## LEZOKO UDALA

*Altamirako auzoan aparkaldi mugatua arautzen duen Ordenantza. Behin betiko akordioa. 2011UD290001.*

Plenoak 2011ko maiatzaren 18an Altamirako aparkaldi mugatuari buruzko araudia onartu zuen, eta testoak hitzez hitz horrela dio:

*Altamira Auzorako aparkaldi mugatuaren arautzea:*

*Zioa.* Altamira auzoko Altzate auzo elkarteak eta auzo horretako 12. zenbakiko auzoen ordezkariek aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta egin da honako proposamen hau. Eskaera horietan, auzo horretan ibilgailuentzako aparkaldi mugatuko sistema ezartzeko azterketa egiteko eskatu zitzaion Udalari. Hori guztia, aparkaleku falta dela-eta inguruan sortzen ari diren arazo larrien ondorioz.

*Legezko oinarria.* Espazio publikoa arautzeko eta kudeatzeko legeek udalei ematen dizkieten eskumenez gain, 2008ko urriaren 1ean onartutako Zirkulazioa Arautzeko Ordenantzaren 28. artikuluak aukera ematen du hainbat zonalde edo auzotan aparkatzeko neurriak ezartzeko, aparkatzeko txandak ezarri eta horretarako dagoen espazio publikoa modu jakin batean kudeatu ahal izateko.

*Proposamena.* «Zioa» atalean adierazitakoa aintzat hartuta eta eskatutakoari kasu eginez, azterketa hori egin zen. Hala, ordenantza moduan proposatu nahi du Buruzagitza honek arautze hori.

*Lezoko Altamira Auzoko aparkaldi mugatua arautzeko Ordenantza*

*1. artikulua.* Pertsonen eta ibilgailuen kaleetako zirkulazioari dagokionez Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legeak eta Trafikoari, Motorrezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bideko Segurtasunari buruzko Legeak udalerriari emandako eskumenak eta Zirkulazioa Arautzeko Lezoko Udalaren Ordenantzaren 28. artikulua aintzat hartuta egin da ordenantza hau.

*2. artikulua.* Ordenantza honen xedea da ordenantza honen 6. artikuluan aipatutako lekuetako aparkaldi mugatuaren inguruko arauak ezartzea, bai eta leku horietan aparkatu ahal izateko baimena esleitzeko baldintzak ere.

*3. artikulua.* Honako hauek dira Altamira auzoko leku horretan aparkaldia mugatzeko helburuak: Batetik, aparkaleku eskaerari behar bezala erantzutea, helburu orokorrak aintzat hartuta, aparkalekuak txandaka erabili ahal izateko; eta bestetik, erabilera publikoko aparkalekuak kudeatzea, horretarako beharrezkoak diren neurriak ezarrita.

*4. artikulua.* Arau hauek ordenantza honen 6. artikuluan aipatutako zonaldeetako aparkaldi mugatuaren inguruko xehetasunak eskaintzen dituzte.

*5. artikulua.* Salbuespen gisa, egoki irizten dituen neurriak hartu ahal izango ditu alkateak edo ordezkari eskumendunak, eta ordenantza honek arautako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo bertan behera utzi, zirkulazioagatik edo antzeko bestelako hainbat egoeragatik hala komeni bada.

*6. artikulua.* «Aparkaldi mugatua xede duen ordenantza honen eraginpeko lekua behar bezala seinaleztatuko da.

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Ordenanza reguladora del estacionamiento limitado en Altamira. Aprobación definitiva. 2011UD290001.*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 18 de mayo de 2011, aprobó definitivamente la ordenanza relativa al aparcamiento limitado en Altamira, cuyo texto literal es el siguiente:

*Regulación del estacionamiento limitado para el Barrio Altamira:*

*Motivo.* La presente propuesta se realiza teniendo en cuenta las solicitudes presentadas tanto por parte de la A.V.V. Altzate, del Barrio Altamira como por la parte de la representación de la comunidad de vecinos del n.º 12 del mencionado barrio. En ellas, este Ayuntamiento recibió la petición para el estudio correspondiente con la finalidad de implantar un sistema de estacionamiento limitado para los vehículos en el citado barrio. Todo lo anterior motivado por los serios problemas que por falta de estacionamiento están surgiendo en el lugar.

*Fundamento legal.* Además de las atribuciones que las leyes otorgan a los municipios en materia de regulación y gestión del espacio público, la Ordenanza Reguladora del Tráfico aprobada con fecha 1 de octubre de 2008, en su artículo 28 establece la posibilidad de regular medidas de estacionamiento en zonas o barrios determinados con el fin de garantizar la rotación de los aparcamientos y gestionar de una forma concreta el espacio público para tal fin.

*Propuesta.* Tomando en consideración lo expuesto en el apartado «Motivo», y accediendo a lo solicitado, se procedió al estudio correspondiente. Después de ello, esta Jefatura eleva a propuesta la siguiente regulación en forma de ordenanza.

*Ordenanza reguladora del estacionamiento limitado para el Barrio Altamira del Muncipio de Lezo.*

*Artículo 1.* La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida al municipio en materia de tráfico de personas y vehículos en vías urbanas, por la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y por la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y seguridad vial, y en virtud del art. 28 de la Ordenanza Reguladora de Tráfico del Ayuntamiento de Lezo.

*Artículo 2.* El objeto de la presente Ordenanza es establecer las normas que han de regular el estacionamiento limitado en las zonas afectadas, que se mencionan en el art. 6 de la presente ordenanza, así como las condiciones para la adjudicación del permiso para poder estacionar en las zonas afectadas.

*Artículo 3.* Los objetivos para limitar el estacionamiento en la zona afectada del barrio Altamira son, por una parte, el de atender adecuadamente la demanda de estacionamiento, dentro de los objetivos generales y así garantizar la rotación del estacionamiento y, por otra, el de gestionar el espacio de aparcamiento de uso público, estableciendo medidas para garantizar su cumplimiento.

*Artículo 4.* La presente regulación detalla la limitación del tiempo de estacionamiento en las zonas afectadas que se mencionan en el art. 6 de la presente ordenanza.

*Artículo 5.* Con carácter excepcional, el Alcalde, o delegado correspondiente, podrá adoptar las medidas que considere oportunas, modificando o suspendiendo temporalmente las condiciones del estacionamiento reguladas en esta ordenanza cuando las circunstancias de tráfico u otras situaciones análogas, así lo aconsejen.

*Artículo 6.* «La zona afectada por la limitación de estacionamiento objeto de la presente ordenanza se señalizará conve-

Ordenantza honek eragina izango du Tomás Garbizu kaleko aparkalekuetan(hain zuzen kale horretarako 1 zenbakitik 20 zenbakira bitartekoetan) eta 20:00etatik 08:00etara aparkatu ahal izango da. Ordutegi horretan, dagokion udal baimena dutenek soilik aparkatu ahal izango dituzte euren ibilgailuak. Hemen ez diren aipatzen beste aparkalekuak aparkatzeko libre geratuko dira.

*7. artikulua.* Udaltzaingoaren sailaren bitartez, 6. atalean adierazitako zonalde horretan aparkatzeko kotxe bakoitzeko txartel ofizial bakarra egingo du Udalak; hirurterako izango da, eta I. eranskinean ageri dira horren ezaugarriak.

Udaltzaingoak txartelen errejistroa egingo du, baimen zenbakien arabera.

Era berean, udal arduradunaren arabera egoera berezian (gaixotasuna, lan arrazoiak,) daudela egiaztatzen dute ibilgailuei ere eman ahal izango die Udalak txartel ofizial hori, gehienez ere urtebeterako.

Baldintzak:

Honako hauek dira aparkatzeko txartela eskuratzeko baldintzak:

1. eta 2. zonalderako:

Lezon erroldatuta egotea eta ibilgailua udaletxe horretan erroldatuta edukitzea.

Udalarekin zorrik ez izatea.

Txartela egiteko eta izapidetzeko gastuei dagokien udal tasa ordaintzea, ordaindu beharrekoa dagokion araudi fiskalean jasota dago.

*8. artikulua.* Ordenantza honen eraginpeko zonalde horretan hori urratu gabe aparkatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Lezoko Udalak egindako txartela kanpotik argi eta garbi ikusteko moduan jarri behar da.

b) Ordenantza honen 6. artikuluan aipatutako zonaldeetan aparkatzeko baimena duten ibilgailuek gainerako ibilgailuek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte, aparkatzeko ordutegitik kanpo badaude.

c) Ibilgailu bakoitzak txartel bakarra izango du.

d) Erroldatu bakoitzak txartel bakarra izango du.

*9. artikulua.* Ordenantza honen edozein artikulu edota horiek garatzeko Alkatetzak onartutako xedapenak urratuz gero, trafikoaren eta zirkulazioaren inguruko arauak urratuko dira, eta legeek horretarako ezarritako zigorrak bete beharko dira.

Arau-haustea izango da:

a) Txartel ofizialik gabe aparkatzea.

b) Txartel ofizialik kanpotik argi eta garbi ikusteko moduan ez edukitzea.

c) Txartela manipulatuta, beste ibilgailuarentzako emana, faltsututa, eraingita edo ezeztatuta egotea, edo dagokiona ez izatea.

d) Leku berean hamar egunetik gora egotea aparkatuta.

*10 artikulua.* Ordenantza honen 8. eta 9. artikuluetan aipatutako arau-urratzeak arinak izango dira, zigorrei dagokienez.

nientemente y será de aplicación para todos las plazas de estacionamientos existentes entre los números 1 al 20 de la calle Tomás Garbizu. El horario restringido para estacionar será desde las 20:00 horas hasta las 8:00 horas. Dentro del citado horario se autorizará el estacionamiento de vehículos para los que tengan concedido el permiso mediante la correspondiente autorización municipal exclusivamente, quedando libre de la presente regulación el resto de estacionamientos del barrio Altamira».

*Artículo 7.* El Ayuntamiento emitirá, a través del departamento de la Policía Local, un único distintivo oficial por vehículo para el estacionamiento en la zona citada en el art. 6, con validez trienal, y con las características que se citan en el Anexo I.

La Policía Local creará un registro dependiendo del número de la licencia.

Así mismo, el Ayuntamiento podrá otorgar el citado distintivo oficial con validez máxima de un año, para aquellos vehículos que a criterio del responsable municipal correspondiente acrediten circunstancias especiales (enfermedad, motivos laborales,).

Requisitos:

Los requisitos para poder optar a una tarjeta de estacionamiento serán los siguientes:

Para las zonas 1 y 2:

Estar empadronado en Lezo y tener el vehículo censado en el mencionado ayuntamiento.

No tener ninguna deuda pendiente con el Ayuntamiento.

Abonar la tasa municipal correspondiente por gastos de emisión y tramitación de las citadas tarjetas, cuyo importe queda regulado en la ordenanza fiscal correspondiente.

*Artículo 8.* Para poder estacionar dentro de las zona afectada por la presente ordenanza sin infringir la misma, se deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Exhibir de forma totalmente visible desde el exterior, el correspondiente distintivo oficial expedido por el Ayuntamiento de Lezo.

b) Los vehículos autorizados para estacionar en las zonas mencionadas en el artículo 6 de la presente ordenanza, cuando se encuentren fuera del horario restringido tendrán los mismos derechos y obligaciones que el resto de los vehículos.

c) Cada vehículo dispondrá de una única tarjeta.

d) Cada persona empadronada dispondrá de una única tarjeta.

*Artículo 9.* La infracción de cualquiera de los artículos de la presente ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía, tendrá la consideración de infracción a las normas de ordenación de tráfico y circulación, y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

Se considerarán infracciones:

a) Estacionar sin el correspondiente distintivo oficial.

b) La no exhibición de forma totalmente visible desde el exterior del correspondiente distintivo oficial.

c) Utilizar un distintivo manipulado, autorizado para otro vehículo, falseado, anulado, caducado o no idóneo.

d) Permanecer estacionado más de diez días naturales en el mismo lugar.

*Artículo 10.* Las infracciones descritas en el art. 8 y en el art. 9, de la presente ordenanza se considerarán infracciones leves a efectos sancionadores.

*11. artikulua.* Ordenantza honek aurreikusi gabekoetarako, Trafikoari, Motorrezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bideko Segurtasunari buruzko Legeak eta Zirkulazioari buruzko Araudi Nagusiak xedatutakoetara joko da, bai eta zirkulazioaren inguruko indarreko gainerako xedapenetara ere.

*Xedapen gehigarria.* Alkatetzak du eskubidea ordenantza hau interpretatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren aginduak eta argibideak onartzeko.

*Azken xedapena.* Ordenantza honek hamaika artikulu, xedapen gehigarri bat, azken xedapena eta I. eranskina ditu, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo lehen lanegunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

*Txartelaren ezaugarriak:*

6. artikuluan aipatzen den zonaldera, Txartelaren xehetasunei dagokienez, hau da, kolorea, letra tipoa eta gainerako zehetasunak, Txartelen aurreko aldeen ereduan aipatzen direnak izan beharko dira.

Ibilgailu baimenduanari buruzko datu guztiak txartelaren aurre aldean agertuko agertuko diren datuak, ibilgailuaren matrikula, eta epemuga azaldu behar dira. Beste datuak txartelaren aurreko aldeen ereduan aipatzen dira.

Txartelaren aurreko aldeko eredua:

*Artículo 11.* Para lo no previsto en la presente ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial, así como en el Reglamento General de Circulación y demás disposiciones que en materia de tráfico estén vigentes.

*Disposición Adicional Única.* La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de la ordenanza.

*Disposición Final.* La presente ordenanza, compuesta por once artículos, una Disposición Adicional Única, una Disposición Final y un Anexo I, entrará en vigor el día hábil siguiente al de su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

ANEXO I

*Características de la tarjeta:*

La definición en cuanto a las características relativas al color, estilo de letra y demás detalles que configuren el distintivo oficial para el estacionamiento en la zona afectada mencionada en el art. 6, será la que se mencione en el Modelo del anverso de la autorización.:

En el anverso de la tarjeta deberán figurar la matrícula relativa al vehículo autorizado, así como una mención de la fecha de caducidad además del texto figura en el modelo que más abajo se incluye.

Modelo del anverso de la autorización para el estacionamiento:




Txartelaren atzeko aldean erabiltzeko baldintzak eta ereduan aipatzen den informazioa agertuko dira.

Txartelaren atzeko aldeko eredua:

En el reverso de los distintivos, deberán figurar las condiciones de uso y la información que se menciona en el modelo.

Modelo para el reverso del distintivo:




Lezo, 2011ko irailaren 27a.—Ainhoa Zabalo Loyarte, Alkatea.

(1664) (10435)

Lezo, a 27 de setiembre de 2011.—La Alcalde, Ainhoa Zabalo Loyarte.

(1664) (10435)